



Mailegu
inbertitu
bat



MADDI ANE TXOPERENA

E
l
k
a
r
i
r
a
k
u
r
r
i

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

mailegu
inbertitu
bat

Emateak eta itzultzeak interesak sustatzen ditu, baina nahimenak lotzea ere bada

René Maunier

I.

Norabidez aldatzeko egun egokia zein den galdetuta ez luke seguru aski ortziralea erantzunen. Baina orain galdeginen baliote, bi aldiz pentsatu beharko luke zein egunetan bizi den jakiteko ere. Bizi da; eta, gaineratekoan, garrantzizkorik deus guti.

Orduan, sekula jantzi ezinen dituzun bitxiak egiten pasatzen duzu eguna?, bota dio artzainak Audreyri, begirada sutondotik apartatu gabe.

Nahi baduzu... horrelako zerbait.

Eta ez duzu sekula izan lepokoren bat ebasteko tentaziorik?

Soinean artilezko jertse gris maiztu bat eta mahoizko galtzak bertzerik ez dituen gizon baten ahotan are eta antzuagoa egin zaio, baina zur mardulezko mahai gainean zopa berodun eltzea pausatu izanak xextrarako gogoia desbideratu dio; eta ez zeukan, dena den, horretarako indarrik.

Zerbait ederra egiten ari naizela ikusteak betetzen nau, asmatu du Audreyk, konbentziturata.

Nongoa zarela erran duzu?

Courbevois, La Défense ondoan.

Eta non ibiltzen zarete mendian Parisen?

Sabaitik zintzilik dagoen bonbilla bakarrak leiho irekitik sartzen den lainoa horitzen du, eta gainerakoa itzal bilakatzen, supazterreko garren joan-jinekin jostetan. Pindarren hotsek aztoratu egiten dute eraikinaren alde batetik bertzera bueltaka dabilen zakur zuri-beltza. Soila da borda, apaletan dauden bitxikeria erabilgaitz eskas batzuk salbu: emakume batena dirudien buztinezko eskultura bat, hondartzako postal bat, elkarren barnean pilatutako plastiko gogorrezko edukiontzi zilindriko batzuk. Ardiki zopa irakina eztarritik beheiti nola isuri zaion sentitu du Audreyk, ia urdaila erretzeraino. Gorridura belarrietara luzatu zaio.

Galtzerdiak kenduko banitu, trabatuko zintuzke?

Hiru, etzan hor!, agindu dio artzainak zakurrari, Audreyk ulertu ez duen mintzaira batean. Egizu etxean bezala, apopiloari orain, baina lau hankakoari so oraino.

Emakumeak minduak ditu hanka zolak, bota berriegien ondorioz, eta esku ahurrak urraduraz josiak. Gizonak espartina beltzak ditu oin hutsetan txinalka.

Audreyk oraindik ez du konprenitzen nola ailegatu den haraino. Marra gorri-zuriak segitzen ari zen lainoa sartuta ere, bat galdu du, eta ez du berriro giblekoa ikusi. GPSaren seinalea erotu

egin zaio, ondotik itzali, eta argi bila goiti eta goiti abiatu da buru beltzeko artaldea atzeman duen arte. Ilun zegoen ordurako. Eta artzainak non dagoen jakinarazi dionean amore eman du.

Ona dago?

Hamaika aldiz oroitu da lagunei GR10aren zati bat bakarrik eta telefonorik gabe eginen zuela aitortu zienean bueltan jasotako isiltasunaz. Ez die inolaz ere kontaktuko.

Gazta mutur bat?

Txokolate zati bat dut nik, eta fruitu idor batzuk; ezin dizut bertzerik eskaini.

Gorde biharko, bide luzea duzu Larraineraino. Galtzen ez bazara, gehitu du, buruaz ezker-eskuin ezetz eginez, irribarre erdi batez. Ogia ere emanen dizut.

Hemendik aterata eskuin, ezta?, ziurtatu nahi izan du Audreyk, GPSa bordako entxufe bakarrean kargatzen ari dela baieztatuta.

Hurrengo bordatik aitzinera ez duzu galbiderik.

Sarrerakoa ez den etxolako ate bakarra ireki du Pierrek. Egurrezko oholaren gibelean bertze ate bat dago, sendoagoa, metalikoa. Zabaldu duenean hozkailu handi aratz bat agertu da bertze aldean, zuria, argitsua, ordenatua. Temperatura eta hezetasuna markatzen duten pantailak, datak, gazta fresko eta onduagoak ilaran, lizunik gabeak. Apalen sakonera kontuan hartuta Audrey ohartu da eraikinaren parterik handiena hartuko duela frigorifikoak, hain segur. Kanpotik ez du neurtu.

Fuerte zalea zara?

Segundo gutiren buruan itxi du atea, eta sekula dastatu duen gaztarik onena ahoratu bitartean parean ikusi berri duen ispiatzeari so gelditu da emakumea. Ohol zahar batzuk berriro ere.

Nekatua zaude, ezta?

Bere kalkuluen arabera, bezperan lo egindako orenak halako bi eginak ditu dagoeneko oinez. Egurrezko eskailera batzuetatik igotzen den ganbara faltsu bat erakutsi dio artzainak buru keinu batez.

Ni goiz mugituko naiz, egin zuk lo hor.

Ez, ez, badut matalaza.

Berandura arte gelditzen naiz sutondoan. Eta hartara Hiruk ez zaitu nardatuko.

Mesanotxe gisa jarritako enbor zizelkatu baten gainean utzi ditu Audreyk zilarrezko belarritako borobil ttipiak, liburu baten aldamenean; ez du ezagutu autorea. Maindire zuriek belar fresko eta ke usaina dute, nahastuta, eta amorrua eman dio pentsatzeak ezin izanen duela ekidin bere izerdi arrastoak han uztea. Bordaren kanpoaldean eta plastikozko botila bat dutxatzat hartuta

bere burua garbitzeari uko egin dio, biluztasunagatik —komunik ez du ikusi—. Langarra euri bilakatu da txapazko teilatuaren gainean, eta loak bidean eraman du.

Begiak elkarri kolatuak ditu ernatu denean, haizatuak, hezeak; gogortuak sorbaldak eta aztalak; gaua nahasia izan da. Artzainaren begi urdinekin amestu du: eskaileraren ertzean zegoen, bere loari begira. Baina bereak ireki ditueneguzki izpiak baino ez ziren sartzen bordara. Kafe egin berriaren usaina, ogi zati bat, infusio poltsak aukeran, errautsa sutondoan. Bere bizkar-zaku berde-iluna mahaiaren kontra, plastikozko botilak ur freskoz beteak. Harri koxkor batzuekin egindako gezi bat atarian, eskuinaldera; zerua garbi, ia lainorik gabe. Ohea egitera igo denean hartu ditu ia ahantzitako zilarrezko belarritakoak. Mesanotxean Malraux-ren *La condition humaine*, edizio zahar batean.

II.

Malinowskirenari itzulika ari zaio Pierre. Edo ez ote zen Txaikovski izanen. Baina hori konpositorea zen: hortaz ez du zalantzarik. Eta auskalo noiz ikusiko duen berriro Olhain, ongi galdetu ahal izateko. Truke sistemari *kula* deitu diola, hortaz segur da. Papua Ginea Berrian zela ere bai. Eta emandako adibide ustez desegokiaz: ardiek esnea ematen diotela berari, lurrak belarra ardiei, eta artzainak mendiari garbitasuna eta zaintza. Ez daki hala ote zen ordena, justu hori erraten ari zen bitartean ile beltz koipeztatua mototsetik askatzen hasi baita neska gaztea, berriz ere dena ongi lotzeko, eta gustura orraztuko liokeela pentsatzen gelditu da Pierre. Ez daki alaba bati bezala ala bertze nolabait.

Mailegu inbertitu bat, funtsean. Baina taldeka.

Zer?

Pasatuko diola liburua, bukatzen duenean. Pazifikoko ez dakit zer. Hitz egiten duen abiadura berean leitzen badu fite izanen dela gogoratu zaio.

Etorri bezala alde egin du, La Sportiva gorriak oinetan, propagandazko elastiko ubel izerditua eskuineko sorbaldatik zintzilik, eta poltsa batean bildutako beirazko bi pote luzanga Pierreren eskuetan utzita: axoa eta irrisa. Gaxuxaren soberakinak, Olhainen hitzetan. Pierre ez da bereziki gose, baina ezetzik ezin zion erran halako neska gazte ederrari, eta gauerako ere ona egonen dela pentsatu du, edo Hiruk janen duela, bertzela. Juan Pitora bertze egun batean jaitsi beharko du.

Lakartxelaren oinetan zabaldu du goizaldean emakume ezezagun haren buru ondotik tentuz hartutako liburua, hura ere Olhainek utzitakoa. Zer iritzi duen galdetu dionean erran behar izan dio oraindik ez duela bukatu hasi ere egin ez duen hori. Poema batzuk dira, hizkuntza arrotz batetik frantsesera itzultitakoak. Eta poemek nagia ematen diote, dela ez dituelako ulertzen, dela ez dituelako konprenitu nahi, dela hark gaztetan idatzi zituenak ekartzen dizkiotelako oroimenera. Ilargi hura, metafora haiek, kalabaza zatiak.

Hiruren zaunkek itxiarazi diote liburua, bigarren poeman. Ez zuen garbi maitasunaz ari zen ala gerraz. Burua nahasi dio laztan batez, eta zakutoan sartu du liburuxka, eskatu gabe eman dizkioten bertzeen aldamenean, handik sakelako telefonoa ateratzeko. Baina tenorea ikusi duenean berriro gorde du: Gaxuxaren ostatura deitzeko goizegi.

Bertze bi gazte datoz lasterka maldan goiti. Ardiak ikustean desbideratu, eta eskuinerantz jo dute, aitzinean doanak ordulariari sakatuta. Makilaz agurtu ditu Pierrek, eta bonetaren

itzalpean kukutu da. Olhaini galdetu behar lioke kasu horretan ere aplikatzen ote den Malinowskiren teoria. Mendiak korrikalariei askatasuna, edo errekorrak, edo giharrak; eta, gero, zer norabidetan hasi beharko luke zirkulua? Errekorrek Interneti zaleak? —ez daki horrela deitzen diren ere—. Eta Internetek mendiari? Txaikovskirekin bezala gertatzen zaio gaztearekin: aise entzuten duela, baina ez dakiela xuxen ulertzen ote duen, eta bere buruari azaltzen hasita disonante bilakatzen zaizkiola hitzak. Eta esplikatzen zaila dena are konplikatua dela barneratzen. Eta horrela hurrengo ustekabeko bisitara arte.

Bazka bakantzen hasia da alde horretan, eta eguerdi partean bordatik pasatuko dela erabaki du, poteak bederen han uzteko, eta agian dastatzeko. Hiruri aginduka hasi eta berehala ekarri dio tropa oinpera. Harri eta belarrezko tontorraren argazki bat bidali dio Gaxuxari, azkenean; kabalarik gabea.

Zelaitu didazun aldapa. Idatzi bezala ezabatu du.

Zerua bezain argi, iloba bezain gazte... Kaka pikor bat hobe da.

Eskerrak ematea guti da. Eta muxuaren emotikono bat.

Soberakinak ere sobera enetako.

Eta azkenean deus ez. Argazkia.

III.

Ez lukete eskatuko ez balitz izenagatik. Eta horri esker ere bereizten du Gaxuxak nork dakien zertxobait euskaraz eta zeinek tutik ere ez. Baina salbuespenak ere araua berresteko daudenez, Amodio botila bat eman dio barrako egurrezko aulki bakarrean jarri den emakumeari, horaila. Paristarra dela erran berri dio, eta badoala etxera bueltan. Azkenean, erran du, lohiz zikindutako bizkar-zaku berde-ilunari begira —ez darama maskorrik zintzilik—. Hemendik hasi zinen eta *stop*-ez itzuli zara Santa Grazira? Bai, horrelako zerbait. Harena zen, beraz, Nissan Qashqai gris iluna: argitu du misterioa. Halako auto bat aste osoan elizaren atarian uztea ere, pentsatu du Gaxuxak. Bederen zuhaitz baten azpian. Eta, noraino iritsi zara? Ez duela bukatu, erantzun dio, zehaztu gabe zer; baina itzuliko dela. Eraman ote dezakeen botila bat oroigarri gisa, Audreyk. Kostaldeko muinoetako bat gogorarazi diola etiketak: begira, hau, erakutsi dio ertzak plegaturiko postal batean. Ez dakiela zein den. Botila betea ala hutsa?, galdetu dio zerbitzariak. Betea, zergatik ez. Hiruko *pack* bat, konparazione?

Balirudike hilabete bat pasatu duela inorekin mintzatu gabe eta aldi berean edo hargatik hitz guziak botatzen dituela aldiro egokiena aukeratzeko tarterik hartu gabe. Ile horia buruko larruaren kontra-kontra egindako txirikorda batean bildua du, jertse beixa atalka marroi bilakaturia. Ba ote duen ohatzerik libre, eskatu dio lehenik. Baina azkenean ezetz, geldituko dela bidean. Maule hurbil da? Zergatik duen ostatuak sabaia hain apala, ondotik. Gaxuxak ez zuen sekula horretan pentsatu. Barkatu, kuriositate hutsa zen. Handiagoak dira sabaiak Parisen?, erantzun dio, matelak gorriturik. Etxearen arabera, suposatzen dut.

Olhainek berretsi dio turistaren arrazoia, makurka sartu baita ostatuko atletik, tenis gorriak eta xira beltza soinean, ile-aurpegiak trenpatuak. Bota du, azkenean?, zirikatatu du izebak. Bete-bete harrapatu nau: gozamina. Zidor batean gurutzatutako bi mendizalari behi batek nola egin die so Audreyk izeba-iloben solasei, tartean-tartean belarriak eta muturra are gehiago luzatuta. Zer hizkuntza familiatakoa den galdetu dio gero Gaxuxari. Ez dakiela xuxen. Barkatu, galdera gehiegi egiten ari naiz, beharbada?

Euskaraz segitu du Olhainek, paristarra han ez balego bezala. Pierrerentzat ezer ba ote duen galdegin dio izebari, hozkailua irekita. Ez zara aski nekatu, ala? Bihar goizean joanen dela berriz, eta badaezpada. Erran ote dion deus azken liburuari buruz. Eta horri ere ezetz izebak: ez direla telefonoz mintzatzen. Eta orduan nola dakien zehazki non egoten den. Bertze garagarno bat eskaini dio Gaxuxak Audreyri, eta hark buruaz baietz. Oraingoa xuria, otoi. Azkenean lotan

gelditu beharko duela, zerbitzariak, irribarrez. Liburuez zerbait erranik ere ez lukeela jakinen ongi transmititzen, Gaxuxak, orain gazteari. Dutzara noa, Olhainek. Lagunduko zaitut afariarekin.

Patatak zuritzen hasi da zaharrena sukaldean, atea erdi irekita, begia Audreyren gainetik kendu gabe. Bisitaria koaderno batean ari da zerbait zirrimarratzen, barraren gainean. Zein da zure euskarazko hitzik gustukoena?, galdegin dio ozen Gaxuxari. Lakartxela, erantzun dio bi aldiz pentsatu gabe, bere baitan ziur euskaraz ote den asmatu ezinik. Gero eta hurbilagotik entzuten diren trumoi hotsek goiko solairuko dutxaren iturriarekin bat egin dute. Ez dago musikarik ostatuan. Eta zer erran nahi du, zehazki? Nik esperatuko nuke ekaitza pasatu arte, gomendatu dio paristarrari Gaxuxak, labana baten bila barrara joan denean. Hobe Auñamendi. Ahuntzen mendia, zehaztu du. Ahuntz gazta maite duzulako? Ez gehiegi, aitortu dio. Eta, orduan? Ardi mendiak denak direla, eta karkaila batez itzuli da sukaldera. Audreyk orain ikusi du barra gibelesko apalean euliz inguraturiko gazta oliotsu bat, plater batean. Hautatu ez duen bertze garagardo motak ahuntz-arra erran nahi duela azaldu dio Gaxuxak bueltarakoan, eta jainko bat dela. Galdetu gabe ireki dio bat. Ekarri bertze *pack* bat, bada.

Liburuxkan izkiriatu ditu *Ahoughnaméndi*, *Aquerbèlce*, *ahouns*. Horrela idazten dira? Zuzentzeko kaiera hartu dionean paper zurian marrazturiko forma geometrikoak behatu ditu Gaxuxak hizkien ondoan: erronboak, hirukiak eta borobilak elkarri nahi gabe bezala lotuta. Bitxigilea naiz, baina zirriborroak bertzerik ez dira, azaldu du Audreyk. Ideiak hartzen ditut bidaietan, horregatik galdetu dizut izenena. Baina ez du gehiegi axola. Gaxuxak orduan erreparatu dio emakumeak soinean duen lepokoari: harri ttipi eta distirant bat zilarrezko kate ezinago fin batean. Hau ez dakit zergatik daramadan ere, mutil lagun ohiak oparitu zidan, erran du, harriari eutsita. Istant batez zalantza egin ondotik lepo gibeletik askatu, bola batean bildu, eta barran utzi du. Ezetz eta ezetz, buruaz, Gaxuxak. Merke-merkea da, benetan; fabore bat eginen zenidake, aspaldi kendu behar nuen. Trago luze bat eman dio Akerbeltz uherrari, bertzea hobe zegoela gehituta. Eta, orain, mutil lagunik baduzu? Leihotik begira, atertu duela eta berandutzen hasi zaiola ahoskatzen saiatu da mihi lodiz Audrey, bizkarrean zakua eta esku banatan garagardoak hartzearekin bat, koaderno besazpian. Eskerrik anitz, agurtu da azkenik. Euskaraz erran dizu?, galdetu dio izebari Olhainek, eskaileretatik beheiti heldu dela. Hala..., ezpainak ia ireki gabe Gaxuxak, zilarrezko lepokoa sakelan duela segurtatuta. Afaria prestatzen segitu dute biek.

Nissan Qashqaiaren motorraren burrunba sartu da ostatuko atetik, urrunagotik turuta ezagun bikoiztu bat, Berlingo zuri zahar baten itzala atarian gero. Pierre zen?, galdegin du sukalde barrenetik Olhainek, begi-belarriak zabal. Ez dut uste: auzoak auto bera du, Gaxuxak. Ikusten duzun hurrengoan erran iezaiozu etxean dudala Malinowskiren liburua.

Ostatura trago bat hartzera hurbilduriko bisitari gehienek alde egin dute ekaitza baretuta, eta lotarako lekua erreserbatua zuten hiruk baino ez dute erabaki han afaltzea. Gaxuxak beirazko pote luzanga batean sartu ditu txerri erre soberakinak eta patata purea.